

DROGAK ETA SUSTANTZIAK DETEKTATZEN DITUEN EDALONTZIA

Aurtengo gure eskualdeko herriko jaietan kontzertuak eta jai giroa aldatu egin zen. Gazte talde bat, jendearen edalontzietan sustantziak izkutuan sartzen aritu ziren. Gaur egungo gizartean, segurtasun pertsonalak kezka handia sortzen du, batez ere gaueko aisialdian. Horren aurreran, gure taldeak sustantziak eta drogak detektatzen dituen edalontzia eratzea erabaki dugu, TragOk.

Gure helburu nagusia gazteen segurtasuna eta osasuna zaintzea da, eta bereziki emakumeen babesa lehenestea. Gaur egun, zoritxarrez, emakumeak dira eraso eta indarkeria gehien pairatzen dituzten pertsonak, eta horrek gure arreta berezia eskatzen du, baita kontzientziazioa eta prebentzioa sustatzea ere.

Gainera ingurumenarekin konprometituak gaudenez, gure edalontziak plastiko birziklatutakoak izango dira. Horrela, hondakinak murriztu eta baliabideen erabilera arduratsua sustatzen dugu. Txikiak diruditen ekintzek ere planeta handi baten alde egiten dute.

Honekin jai giro aproposa sortzea lortu nahi dugu, non denek segurtasunez eta lasaitasunez goza dezaketen. Baita jaien benetako helburua betetzea, komunitatea eta herrigintza sustatuz.

Gure lehen helburua udaletxeekin lan egitea da herriko jaietan erabiltzen hasteko. Herriko jaietan hazi gara eta hauetan erabili nahi dugu gure produktua lehenik eta behin. Behin hori lortuta, gure proiektua diskoteketara, tabernetara eta festibaletara zabaltzeko asmoa dugu, gero eta jende gehiagorengana iritsiz.

Badakigu jada pultsera batzuk existitzen direla likidoarekin kontaktua egiten duenean, esaten digula sustantziarik baduen edo ez. Gureak berezitasun bat du desberdinak egiten gaituena, sustantziak botatzen diguten momentuan esaten digu gure edaria kutsatuta badagoen. Ez dugu denbora guztian gure edaria egiaztatzen egon behar; gure edalontzi adimendunak berehala ohartarazten gaitu, substantzia kaltegarriren bat gehitu digutenean. Horrela, segurtasun handiagoz eta lasaiago goza dezakegu gure edariaz eta aisialdiaz.

Gure TragOK edalontzi adimenduna garestia da, baina horrek laguntzen digu arduraz erabiltzen eta festetan dirua alferrik ez gastatzen. Edalontzi bakar batekin nahikoa da, eta alokatu daiteke, festa amaitutakoan berriro tabernetara edo txosnetara itzuliz. Horrela berrerabilpena sustatzen da eta ingurumenari laguntzen diogu. Prezioa altua bada ere, bakoitzak bere edalontzia zaintzen du, festa modu arduratsuan gozatzen da eta iraunkortasuna lehenesten dugu.